

Aurten inoiz baino jende gehiagok parte hartu du ate irekietan: 469 lagun

2009/05/12

Aurten **469 lagun** etorri dira ate irekietara, Huhezi fakultatera, sekula baino jende gehiago. Otsailean hasi eta maiatza bitartean, asistentzia errekorrak hautsi dira lau jardunaldietan.

Aurtengo azken jardunaldia joan den larunbatean egin zen, maiatzaren 9an, eta hor ere inoiz baino jende gehiago etorri zen, alderatuz gero beste urte batzuetako laugarren jardunaldiekin 114 lagun. [Grafiko honetan](#) ikus daiteke ate irekietako 4. egunak izan duen bilakaera azken urteotan.



Aurrematrikulak

Ate irekien arrakastak izan du ispilua aurrematrikuletan. Larunbatean bertan, 36 aurrematrikula egin ziren Huhezín, horrela banatuta:

- Lehen Hezkuntza: 16
- Haur Hezkuntza: 11
- Ikus-entzunezko Komunikazioa: 6
- Bigarren diploma: 3